

NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZAR NAGUSIAK 2016ko UZTAILAREN 1ean EGIN DUEN EZOHIKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK:

*Oibarko Udala
Allingo Udala
Altsasuko Udala
Antsoaingo Udala
Agoizko Udala
Araizko Udala
Arangurengo Udala
Arbizuko Udala
Artzibarko Udala
Aresoko Udala
Arguedasko Udala
Artaxoako Udala
Artazuko Udala
Atezko Udala
Aurizko Udala
Azagrako Udala
Azueloko Udala
Barañaingo Udala
Bargotako Udala
Beintza-Labaiengo Udala
Berbintzanako Udala
Berriozarko Udala
Beteluko Udala
Bidaurreta Udala
Buñuelgo Udala
Burlatako Udala
Caparrosoko Udala
Kasedako Udala
Oltza zendeako Udala
Cintruenigoko Udala
Ziraukiko Udala
Zizurko Udala
Cortesko Udala
Donamariako Udala
El Bustoko Udala
Enerizko Udala
Esprontzedako Udala
Lizarrako Udala
Esteribarko Udala
Etxarri Aranazko Udala
Etxauriko Udala
Ezporogiko Udala
Faltzesko Udala
Galarko Udala
Garraldako Udala
Gorzako Udala
Gesalazko Udala*

Iruña Park Hotelean (Iruñeko Arcadio M^a Larraona kalea, 1), albo batean jasotako toki-erakundeetako ordezkariak bertan direla, hasiera eman zaio, bi mila eta hamaseiko uztailaren 1ean, NUKFko ezohiko batzar nagusiari arratsaldeko 17:00etan, bigarren deian. Ondorengo kideok izan dira batzarraren mahaiari: Pablo Azcona Molinet jn., Raquel Garbayo Berdonces and., eta Berta Enrique Conargo and., federazioaren presidentea, lehen presidenteordea eta idazkari nagusia, hurrenez hurren, honakoa izanik

EGUNEKO GAI ZERRENDA

- 1.- NUKFren 2016ko kontuak onartu.
- 2.- 2016ko lehenengo seihilekoan burututako jardueren kudeaketa-txostena.
- 3.- Toki-administrazioa eraldatzeko proposamen-agiria, NUKFk burututako prozesu parte-hartzailearen barnean landua.

Presidenteak bertaratuei agur egin die, mahaikideak aurkeztu eta Francisco Javier Perez Cueva, NUKFko bigarren presidenteordea, bertan ez egona desenkusatu du.

Eguneko gai-zerrendako lehenengo puntuari heldu aurretik, gogora ekarri du ezohiko batzar hau egiteak asmoa duela, NUKFren jarduera-programan jasotako konpromisoa betetz, 2016. urteko lehen seihilekoan ezohiko batzar bat burutzea, NUKFren kontuak onartzeko eta lehen seihilekoan burututako jardueren berri emateko. Esan du, halaber, bilera baliatu nahi dela toki-administrazioa aldatzeko NUKFk burutu duen prozesu parte-hartzailearen barnean landutako proposamen-agiria ezagutzera emateko.

1. gaia.- NUKFren 2015eko kontuak onartu.

Presidente jaunak esan du aurkeztutako kontuak nagusiki NUKFren aurreko kudeatzaileei dagokiela. Egungo kudeatzaileek kargua hartu zutenetik egin duten kudeaketari dagokionez, azpimarratu du lankidetzarako funtsa 10.000 euroan igo dela, urriaren bigarren hamabostaldian Saharako iheslarien esparruetan izandako euri-erauntsien

Girgillaoko Udala
Uharteko Udala
Ibargoitiko Udala
Iguzkitzako Udala
Irurtzungo Udala
Itzako Udala
Txulapaingo Udala
Lakuntzako Udala
Lekunberriko Udala
Leozko Udala
Lergako Udala
Ledeako Udala
Lizoinibar-Arriasoitiko Udala
Lodosako Udala
Mendabiako Udala
Milagroko Udala
Eloko Udala
Murchanteko Udala
Orkoiengo Udala
Iruñeko Udala
Azkoienngo Udala
Ribaforadako Udala
Zareko Udala
San Adriango Udala
Zangozako Udala
Sartagudako Udala
Tafallako Udala
Tebas - Muru Artederretako Udala
Torres del Rioko Udala
Tuterako Udala
Uxueko Udala
Ultzamako Udala
Urraulgoitiko Udala
Urraulbeitiko Udala
Urrozko Udala
Eguesibarreko Udala
Ollarango Udala
Valtierrako Udala
Villamayor de Monjardingo Udala
Villatuertako Udala
Atarrabiako Udala
Esako Udala
Zubietako Udala
Añezkarko Kontzejua
Aurizberriko Kontzejua
Auzako Kontzejua
Aiesako Kontzejua
Azozko Kontzejua
Zizur Nagusiko Kontzejua
Etzagueko Kontzejua
Eugiko Kontzejua
Gabarderalgo Kontzejua
Galarko Kontzejua
Iberoko Kontzejua
Ibiriku Deierriko Kontzejua
Idotzingo Kontzejua
Itzalleko Kontzejua
Larragetako Kontzejua

ondorioz larrialdietarako ezohiko laguntza emate aldera.

Ondoren, hitza eman dio idazkari nagusiari NUKFren 2015. ekitaldiko aurrekontuaren kitapena aurkezteko.

Likidazioak honako hauek jasotzen ditu: NUKFren beraren, Concejo aldizkariaren eta prestakuntza-planaren gauzatutako aurrekontua. Eraitza orokorra 119.479,87 euro da, 765.463,50 euroko guztizko kontsolidatutik eta 645.986,63 euroko gastutatik ateratzen dena.

Diruzaintzako gerakina 2015eko abenduaren 31n 1.306.962,90 euro zen.

Esku-hartzerik ez da egon; hortaz, batzarrari 2015eko kontuak onartzea eskatu zaio.

Ez du aurkako botorik edo abstentziorik jaso.

ERABAKI DA: NUKFren 2015. ekitaldiko kontuak onartzea, eta aktari gehitu zaizkio eranskin gisa.

2. gaia.- 2016ko lehenengo sei hilekoan burututako jardueren kudeaketa-txostena.

Presidenteak deialdiarekin batera bidali den kudeaketa-txostena aurkeztu du, eta esan du ez dela abenduko batzar nagusira eramane den kudeaketa-txosten osoa, hartutako konpromisoen arabera lehenengo sei hilekoan landutako jardueren txostena baizik. Ondoren aipatzen diren alderdiak izan ditu hizpide.

- Nafarroako toki-administrazioa aldatzeko burututako prozesu parte-hartzailearen barnean landutako jarduerak.
- Aurrera begirako inbertsio-plana dela-eta, Toki Administrazioako Departamentuak bidalitako proposamene eta agirien inguruan gauzatutako jarduerak. Plan horri dagokionez, aipatu da proposatutako zuzkidura ez dela nahikotzat hartzen, eta halaxe jakinarazi zaio Nafarroako Gobernuari.
- NUKFren langile-egituran egin diren aldaketak; besteak beste, NUKFren zerbitzu juridikoetarako Asun Nieto Zabala abokatua kontratatu izana, Berta Enrique Cornagok idazkaritza nagusia bere gain hartu izanaren ondorioz.

Presidenteak, jarduera-planean jasotakoaren arabera, NUKFren eginkizuna definitzeko azterlan estrategikoa aipatu du, nahiz eta ez zegoen lehen sei hileko honetan sartuta. Esan du egokiago iritzi dela helburu horri heltzea tokiko mapa berrantolatzearen inguruko prozesu parte-hartzailea bukatuta, aurretiaz egiteak lanaren eraginkortasunari eta kalitateari kalte egin liezaieketen gehiegizko jarduerak ekarriko bailituzke.

*Muru Artederretako Kontzejua
Narbarteko Kontzejua
Rocaforteko Kontzejua
Undioko Kontzejua
Ustaizeko Kontzejua
Ziako Kontzejua
Zubielkiko Kontzejua
Nafarroako Bardeako Batzarra
Iruñerriko Mankomunitatea
Erriberako Mankomunitatea
Izarbeibarko Mankomunitatea*

Ondoren, esku-hartzeetarako txanda ireki da.

Cintruenigoko alkate eta NUKFko lehen presidenteorde Garbayo andreak hartu du hitza, eta adierazi du bereziki azpimarratu behar dela finantziazioa, inbertsio-plana geldirik baitago. Planerako proposatu den zuzkidura ez dela nahikoa iritzi da, baina arriskua dago planaren onarpena gelditzea. Ildo horretan, esan du behin eta berriro eskatu behar dugula plana aktibatzea eta martxan jartzea.

Azkoiengo alkate Castillo jaunak seriotasuna eskatu du plana lantzerakoan; hau da, gauza daitekeen plan bat landu beharra dagoela esan du. Esan du, halaber, toki-erakundeek eskubidea duten baliabide bat dela, eta hortaz, exijitu egin beharra dagoela.

Presidenteak hitza hartuta esan du aurreko plana bukatzeko foru-lege bat onartu dela, planaren barnean geldirik zeuden inbertsioetakoren bat gauzatzea ahalbidetzeko.

El Bustoko alkateorde Arizaga andreak galdetu du zein diren 0-3 eta musika-eskolen taldeen helburua.

Presidenteak azaldu du zerbitzu horiek dituzten arazoak aztertu, eta zerbitzu horien eskumenen analisi bat egin nahi dela.

ERABAKI DA: NUKFk 2016ko lehenengo sei hilekoan burutu dituen jardueren berri jasotzat hartzea.

3. gaia.- Toki-administrazioa eraldatzeko proposamen-agiria, NUKFk burututako prozesu parte-hartzailearen barnean landua.

Presidente jaunak, lehenik eta behin, dokumentu horren aurrekariak azaldu ditu. Esan du legealdi honetako lehen batzarrean onartu zela prozesu bat irekitzea nahi zuten hautetsi guztien parte-hartzearekin, Nafarroako toki-administrazioak eduki beharko lituzkeen ezaugarriak buruzko proposamenak zehazte aldera. Toki-administrazioa aurreko legealdietan ere saiatu izan da berrantolatzen. Proposamen horiek Nafarroako Gobernuari helaraziko zaizkio, toki-administrazioa berrantolatzeko dagokion dokumentua idaztean aintzat har ditzan.

Jarraian, aipatu da prozesu horretan bi talde eratu direla: talde zuzentzailea, prozesu parte-hartzaileko metodologia eta eman beharreko urratsak onartuko dituen; eta hausnarketarako taldea, Nafarroako osoko toki-erakunde mota eta tamaina guztietako ordezkariak osatuta, hautetsiek egindako proposamenei forma eman eta azkena emateko.

Aldi berean, talde zuzentzaileak erabaki zuen toki-erakundeak azpitaldeak eratzea; kontzejuena eta mankomunitateena, besteak beste.

Prozesu horren barnean azpimarratzekoak dira martxoan eta apirilean Nafarroako zortzi eskualdetan egindako lan-bilera bana; baliagarriak izan dira erreforman heldu beharreko gai nagusiei buruz toki-erakundeetako 300dik gora ordezkarien iritzia jasotzeko.

Azkenik, presidentek hainbat gogoeta egin ditu dokumentuaren inguruan, eta honako alderdiok azpimarratu ditu:

- Oinarrizko proposamenak jasotzen dituen dokumentua da; hortaz, gerora bestelako garapen batzuk beharko ditu.
- Nafarroako Gobernuari helaraziko zaio.
- Dokumentu hori federazioak martxan duen prozesuaren lehenengo fasearen bukaera baino ez da. Urtearen bigarren seihilekoan jarraipena izanen du talde zuzentzaileak onartuko dituen jarduerekin, eta, hala eginez gero, Nafarroako Gobernuak bidaliko dizkigun proposamenekin.

Jarraian, hitza eman dio idazkari nagusiari, eta horrek agiriaren edukia eta alderdirik garrantzitsuenak azaldu ditu, hau da tokiko maparen berrantolaketa gidatu behar duten oinarrizko printzipioak, eta nahitaez landu beharreko hiru aferak: eskumenak, planta lokala eta finantziazioa.

Agiriaren inguruan esku hartzeko eta agiria baloratzeko txanda ireki da:

Azkoiengo alkate Castillo jaunak esan du haren ikuspuntutik hautetsiek oso prestakuntza gutxi dutela eskualdeetan egindako bileretan proposatutako aferen inguruan iritzia emateko, eta horregatik, hainbat proposamen zuhurtziaz hartu behar direla.

Presidenteak esan du antzeman dela prestakuntza-premia hori, batez ere finantziazio gaien inguruan, eta horregatik, datozen hilabeteotan horretan sakonduko dugula, arestian aipatu moduan.

Halaber, azpimarratu du prozesuaren alderdi garrantzitsua izan dela erreformaren inguruko alderdi nagusiei buruzko hausnarketa ahalbidetu izana.

Undioko Kontzejuko ordezkari Miranda jaunak hitza hartuta, aipatu du bere iritziz hamaikagarren printzipioak lehenetsuna izan behar duela, erreforma bideratu behar baita toki-administrazioa partaidetzarako oinarrizko tresna izatera. Esan du legeak herritarrek parte hartzeko organoak arautu behar dituela, eta parte-hartzea printzipio gidaria dela, informazioaz gain, erabakietan parte hartu ahal izatea ere ekarri behar duena.

Presidenteak ñabardura eginda, esan du agirian jasotako printzipioak ez daudela ordenaturik garrantziaren arabera, eta ados dagoela esandakoarekin, toki-erakundeak zerbitzu-emaileak ez ezik, parte hartzeko tresnak ere badirelako.

Iguzkitzako alkate Urra jaunak adierazi du hainbat gaitan, ingurumenekoan kasurako, zenbait udalek ez dutela eskumenak gauzatzeko gaitasunik. Esan du, halaber, kontzejuek, aurrez udalaren txostena jasota, hirigintzako lizentziak emateak atzeratu baino ez duela egiten aipatu emakida; hori dela-eta, lizentzia horiek udalek zuzenean ematea eta horren berri kontzejuei ematea proposatu du.

Undioko Kontzejuko ordezkari Miranda jaunak ohartarazi du erreforma eginda, bermatu egin beharko dela udalei eta kontzejuei emandako eskumenak.

Eugiko Kontzejuko presidente Errea andreak galdetu du nola dagoen Nafarroako Gobernuaren legea onartzeko prozesua (NUKF parte hartzen ari da prozesu horretan).

Presidenteak esan du Nafarroako Gobernua ez dela lege bat idazten ari; aditu-talde baten proposamenak jasotzen eta lantzen ari da, eta talde horren barnean NUKFko hainbat teknikarik hartu dute parte.

ERABAKI DA: jakinaren gainean daudela aitortzea NUKFk burututako prozesu parte-hartzailearen barnean landutako toki-administrazioa eraldatzeko proposamen-agiriaren inguruan.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hemeretziak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut.

PRESIDENTEA

IDAZKARIA

Pablo Azcona Molinet jn,

Berta Enrique Cornago and.